

EUSKADIKO PENTSIOAK, BGAE

2015EKO ABENDUKO GESTIO TXOSTENA

Arriskuko aktiboek portaera txarra izan dute urteko bigarren seihilekoaren bukaeran, nahiz eta urteko azken hiletan jaitsiera handirik ez izan. Dena dela, hegazkortasun handia dago. Eta horren arrazoia ez da ingurune makroekonomikoa –aitzitik, horrek nahiko ondo eusten dio–, baizik eta, alde batetik, Txinako ekonomiaren desazelerazioak –uste baino handiagoak– dakarren arriskua, eta bestetik, lehengaien prezioaren beherakada.

Makroekonomiaren ikuspegitik, munduko hazkunde-tasa % 3 ingurukoa da, eta 2016rako azelerazio txikia aurreikusten da. Herrialde garatuei dagokienez, Euroguneak espero baino hazkunde-tasa handiagoa du: % 1,5 ingurukoa 2015ean. Horrek nolabait konpentsatzen du AEBk galdutako indarra; halere, AEBko hazkunde-tasa % 2,5ekoa izan da. Ziklo-adierazleek, hazteko erritmoa zertxobait apaldu badute ere, ez dute AEBko ekonomiaren geldialdi zakarrik iragartzen. Hori dela-eta, Erreserba Federalak interes-tasak igotzeko zikloari ekin zion joan den abenduan. Gainerako ekonomia garatuak zikloaren bestelako fase batean daude; horregatik, Banku Zentralek moneta-politika hedakorrei eusten die. Garatzeko bidean dauden ekonomiei dagokienez, arrisku gehienak bi eremutan kokatzen dira: batetik, lehengaien prezioarekiko mendekotasun handia duten herrialdeetan; eta bestetik, Txinan, non inork ez baitaki zenbaterainokoa izango den ekonomiaren desazelerazioa.

Lehengaiak ziurgabetasun-iturri handia dira oraindik. Urtearen lehen erdialdean petrolio-upelaren prezioa igo bazen ere, bigarren erdialdean behera egin zuen berriro, nabarmen gainera, % 40 erori baitzen. Jaitsiera horrek zalantza handiak sorrarazi zituen, bai herrialde ekoizleentzat, bai herrialde garatu gehienetako inflazioentzat, zerotik gertu baitaude, eta, beraz, Banku Zentralen helburuetatik oso urrun. Horrek eragin negatiboak ditu Euroguneko ekonomia askoren defizit-helburuak betetzeko. Gainera, Banku Zentralen moneta-politikak baldintzatu egiten ditu, inflazio-espektatibak hondoratzen ari direla ikusten baitute; beraz, pizgarri gehiago sortu behar dituzte. Gauzak horrela, interes-tasek beheraka jarraitzen dute Eurogunean, bai ekonomia periferikoetan, bai erdigunekoetan, neurri handi batean Banku Zentralak egindako erosketen eraginez. Espainiako bonuen interes-tasak oinarrizko 50 puntu jaitsi dira seihilekoan. Hala, 10 urterako bonua % 1,80tik behera kotizatzen ari da. Alemaniarekiko 10 urterako arrisku-prima ere oinarrizko 40 puntu jaitsi da hiruhilekoan.

AEBn, berriz, interes-tasek gora egin dute, 7 urteko egonkortasunaren ondoren. Ekonomiaren hazkundera aurreikusitakoa baino txikiagoa izan denez, ordea, merkatuak ere ez ditu aurreikuspenak bete hazkundera dagokionez. Gure ustez, Erreserba Federalak kontuan izango du interes-tasen igoera gehiagok eragin kaltegarria izan lezakeela egungo koiunturan, inflazioak zerotik hurbil eta hazkunde txikiagoak daudenean. Horregatik, interes-tasen igoera horiek pixkanaka-pixkanaka etorriko direla espero dugu. Hau da, AEBn ere baldintza hedakorrak izango direla aurrerantzean. Gainera, lehengaien prezioak egonkortu edo igotzen diren heinean, inflazioak ere gora egin behar luke.

Agertoki horrek nolabaiteko euskarria ekarri behar lioke zor-merkatuari, nahiz eta, gaur egun, gutxienez maila historikotik gertuko tasetan kotizatu. Hau da, ez dugu interes-tasen igoera handirik espero. Hala ere, hazkunde orokorreko agertokiak apur bat gorantz bultzatu behar lituzke interes-tasak. Burtsek ere goranzko bideari ekin behar liokete berriro, baldin eta Txinako desazelerazio handiaren eta lehengaien prezio-jaitsieraren arriskuak ez badira gauzatzen. Bonu korporatiboen merkatuari dagokionez ere baikorrak gara; izan ere, duela gutxi izandako zigorraren ostean, gobernu-bonuekiko diferentzialek murriztu egin behar lukete.

Planaren Izena	Errentagarritasuna (*)				Eskubide Ekonomikoak	Ohiko Bazk. Onuradun Kopurua
	Urtea	3 Urte	5 Urte	Hasiera		
Euskadiko Pentsioak, Monetario	0,0%	0,1%	0,2%	0,2%	211.147.958,68 €	54.264
Euskadiko Pentsioak	0,9%	2,2%	2,3%	3,7%	163.845.865,21 €	26.953
Euskadiko Pentsioak, Moderado	1,2%	4,4%	3,8%	3,0%	54.076.606,35 €	7.219
Euskadiko Pentsioak, Mixto	1,8%	5,9%	4,8%	4,7%	86.069.874,72 €	15.468
Euskadiko Pentsioak, Variable	3,4%	7,5%	5,4%	4,8%	78.847.571,74 €	14.367
Euskadiko Pentsioak, Dinámico	4,2%	7,3%	4,6%	5,1%	30.580.083,75 €	4.123
Euskadiko Pentsioak, Garantizado I	-0,2%	3,1%	4,0%	5,7%	47.471.368,19 €	3.109
Euskadiko Pentsioak, Garantizado VIII	-0,2%	5,1%	3,2%	3,1%	17.120.850,93 €	3.465
Euskadiko Pentsioak, Garantizado IX	-0,6%	2,8%	-	3,3%	35.562.553,53 €	3.761
Euskadiko Pentsioak, Garantizado XII	-0,1%	6,3%	-	5,9%	24.104.687,30 €	4.561
Euskadiko Pentsioak, Garantizado XIII	-0,1%	3,8%	-	3,9%	18.064.040,82 €	2.645
Euskadiko Pentsioak, Garantizado XIV	-0,2%	4,5%	-	4,6%	28.397.607,36 €	3.732
Euskadiko Pentsioak, Garantizado XV	-0,5%	4,5%	-	4,4%	45.056.479,48 €	7.679
Euskadiko Pentsioak, Garantizado XVI	0,3%	7,9%	-	7,6%	22.132.698,62 €	5.941
Euskadiko Pentsioak, Garantizado XVII	0,3%	-	-	5,3%	17.037.671,61 €	3.157
Euskadiko Pentsioak, Garantizado XVIII	0,3%	-	-	7,5%	31.226.941,70 €	10.030
Euskadiko Pentsioak, Garantizado XIX	1,4%	-	-	6,9%	12.250.575,17 €	1.592
Euskadiko Pentsioak, Garantizado XX	0,6%	-	-	3,9%	51.272.904,90 €	6.953
Euskadiko Pentsioak, Garantizado XXI	0,8%	-	-	4,0%	7.257.368,77 €	910
Euskadiko Pentsioak, Garantizado XXII	1,2%	-	-	4,3%	42.942.056,90 €	5.429
Euskadiko Pentsioak, Garantizado XXIII	1,3%	-	-	1,4%	23.377.329,77 €	3.379
Euskadiko Pentsioak, Garantizado XXIV	1,6%	-	-	1,4%	68.826.673,93 €	9.367
Euskadiko Pentsioak, Garantizado XXV	4,0%	-	-	3,6%	14.074.009,09 €	4.176
Euskadiko Pentsioak, Garantizado XXVI (**)	-0,6%	-	-	-0,6%	47.506.972,60 €	4.172
Euskadiko Pentsioak, Garantizado XXVII(**)	0,0%	-	-	0,0%	47.726.313,81 €	9.620
Izarpensión Renta	-0,3%	0,3%	1,0%	1,1%	46.065.141,70 €	10.921
Izarpensión Garantizado 21	0,5%	8,1%	4,8%	4,6%	32.108.672,09 €	2.057
Izarpensión Garantizado 16	-0,7%	4,5%	-	4,0%	25.997.752,73 €	1.757
Izarpensión Garantizado 15 Plus	-0,8%	4,5%	-	3,5%	54.319.270,12 €	4.352
Izarpensión Garantizado 20	0,3%	7,1%	-	6,3%	9.608.534,63 €	858
Izarpensión Garantizado XV	-0,5%	4,6%	-	4,4%	9.359.407,30 €	1.371
Izarpensión Garantizado XVI	0,5%	8,1%	-	7,8%	3.871.155,37 €	5.941
Izarpensión Garantizado XVII	0,3%	-	-	5,4%	2.475.356,45 €	298
Euskadiko Pentsioak, 2030 (**)	-0,1%	-	-	-0,1%	5.079.380,07 €	1.766
Euskadiko Pentsioak, 2035 (**)	-0,1%	-	-	-0,1%	2.988.835,99 €	1.216
Euskadiko Pentsioak, 2040 (**)	0,1%	-	-	0,1%	2.407.695,44 €	1.321

(*) Urteko UTBarekin. (**) Balio Absolutuan.

Bazkideei hauxe gomendatzen diegu: plan mota aukeratzean inbertsioaren horizontea (erretirora edo erreskatara arte aurreikusten den denbora-tartea) eta arriskuarekiko erlazioa har dezatela kontuan, ez epe laburrerako merkatu-aurreikuspenak. Gainera, interesgarria izan daiteke planerako ekarpenak aldizka egitea, merkatuen hegazkortasuna arintzeko.